# 2001 EKOBAROMETRO SOZIALA
# ECOBARÓMETRO SOCIAL 2001

Ingurugiro Estrategiaren Agiria Saila 2.zk. Maiatzak 2001
Serie Programa Marco Ambiental Nº 2 Mayo 2001

## Zer iritzi dute Euskal Biztanleek Ingurugiroaz?



## ¿Qué opina la Población Vasca sobre el Medio Ambiente?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

IHOBE
Sociedad Pública Gestión Ambiental

**Argitaratzailea:**
Eusko Jaurlaritza, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

**Diseinua:**
Dual XJ. Comunicación & Diseño

**Itzulpena:**
Elhuyar

© IHOBE 2001

**Lege Gordailua:** BI-XXXX-01

**Edita:**
Gobierno Vasco, Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente

**Diseño:**
Dual XJ. Comunicación & Diseño

**Traducción:**
Elhuyar

© IHOBE 2001

**Depósito Legal:** BI-XXXX-01

# 2001 EKOBAROMETRO SOZIALA
# ECOBARÓMETRO SOCIAL 2001

## Zer iritzi dute Euskal Biztanleek Ingurugiroaz?



## ¿Qué opina la Población Vasca sobre el Medio Ambiente?



# Aurkibidea


| | |
|---|---|
| Aurkezpena | 6 |
| Sarrera | 8 |
| 1. Euskal Herritarren Ingurugiroari Buruzko Kontzientziazioa | 10 |
| 2. Ingurugiro-Egoeraren Bilakaera eta Eragileen Jarduerak | 14 |
| 3. Ba al dute Informaziorik Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanleek? | 18 |
| 4. Ingurugiroarekiko Konpromisoa | 22 |
| 5. Euskal Biztanleek Ingurugiroan Parte-Hartzea | 26 |
| 6. Kontsumoa eta Ingurugiroa | 30 |
| 7. Gure Ingurugiroa Hobetzeko Proposamenak | 34 |
| 8. Hiritar-Motak Ingurugiroari Dagokionez | 38 |
| 9. Ondorioak | 43 |

# Indice

Presentación 6

Introducción 8

1. Conciencia Medioambiental de la Ciudadanía Vasca 10

2. Evolución de la Situación Medioambiental y Acciones Desarrolladas por Distintos Agentes 14

3. ¿Están los Habitantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco Informados? 18

4. Compromiso con el Medio Ambiente 22

5. Participación de la Población Vasca en Medio Ambiente 26

6. Consumo y Medio Ambiente 30

7. Propuestas para Mejorar nuestro Medio Ambiente 34

8. Tipologías de Ciudadanos/as ante el Medio Ambiente 38

9. Conclusiones 43



**Patxi Ormazabal**
Lurralde Antolamendu,
Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburua
Consejero de Ordenación
del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente

Bizi-kalitatea gaur egungo gizarteak duen helburu garrantzitsuenetakoa bihurtu da. Euskal Autonomia Erkidegokoaren modernizazio ekonomiko-sozialaren aroa iragan eta gero, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak hiritarrek gero eta gehiago eskatzen duten bizi-kalitatearen alderdi kualitatiboei, alegia osasunari eta inguruneari, erantzun nahi die.

Euskal Herrirako oraingo beharrei erantzuteko gai izango den, baina etorkizuneko belaunaldiek bereei erantzun ahal izateko gaitasunak murriztuko ez dituen garapen jasangarriko ereduak, aldaketa sakonak eragiteko guztion ahalegina eskatzen du. Produkzio- eta kontsumo-molde berriak geureganatzea esan nahi du, baita poluzioaren, natur baliabideen gehiegizko kontsumoaren, hondakinak sortzearen, lurzoruen degradazioaren eta biodibertsitatearen galeraren aurrean, norberak eta gizarteak konpromisoa hartzea ere. Edonola ere, aldaketa hori ez sustatzeak gure herrialdearen etorkizuna arriskuan jartzea eta etorkizunean hor biziko direnen ongizatea hipotekatzea eragingo luke.

Gure bizi-kalitatea, beraz, jasangarritasunaren zimentarrien gainean eraiki beharra dugu: ongizate ekonomikoan, justizia sozialean eta ingurugiro garbi eta osasungarrian hain zuzen. Hiru horiek dira sustatu behar dugun garapen-ereduaren nahitaezko zutarriak. Ingurugiroaren babesa, baliabideen erabilera eraginkorra eta ekosistemen produkzio-ahalmena dira gure lehentasunak. Horregatik ematen diogu horrenbesteko garrantzia euskal hiritarrek beren ingurugiroaz duten iritziari. Ondoren aurkezten den Azterketaren ondorioak funtsezko tresna dira gure Departamentuan erabakiak hartzeko.

La calidad de vida se ha convertido en la sociedad actual en la más importante de las aspiraciones. Pasada la etapa de modernización económico-social de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco quiere responder a la creciente demanda de sus ciudadanos/as sobre los aspectos más cualitativos de la calidad de vida, como son la salud y el entorno.

La adopción de un modelo de desarrollo sostenible para el País Vasco, capaz de satisfacer las necesidades del presente sin poner en peligro la capacidad de las generaciones venideras para cubrir las suyas propias, implica esforzarse en propiciar un profundo cambio. Significa introducir nuevas pautas de producción y consumo y adquirir un compromiso personal y social frente a la contaminación, el consumo excesivo de recursos naturales, la generación de residuos, la degradación de los suelos y la perdida de la biodiversidad. En todo caso, no promover este cambio supondría poner en cuestión el futuro de nuestro país e hipotecar el bienestar de quienes lo habitarán mañana.

Es necesario, por tanto, edificar nuestra calidad de vida sobre los cimientos de la sostenibilidad: el bienestar económico, la justicia social y un medio ambiente limpio y saludable. Estos tres pilares, constituyen la base del imprescindible modelo de desarrollo que debemos impulsar. La protección del medio ambiente, el uso eficiente de recursos y la capacidad productiva de los ecosistemas son nuestras prioridades. Por esta razón nos importa tanto lo que opina la ciudadanía vasca sobre el Medio Ambiente en el que viven. Las conclusiones que aparecen en el Análisis que se presenta a continuación constituye una herramienta fundamental para la toma de decisiones de nuestro Departamento.



**Esther Larrañaga**

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuordea

Viceconsejera de Medio Ambiente del Gobierno Vasco

Gure ingurugiroari eragiten dioten arazoak ezagutzea garrantzitsua izanik ere, natur balio horri buruz euskal hiritarrek duten iritzia zein den jakitea ere behar-beharrezkoa da. Eragiten dioten arazoak, horien eragileak, egon daitezkeen irtenbideak, informazio hori guztia dago jasota “2001 Ekobarometro Soziala. Zer iritzi dute euskal biztanleek Ingurugiroaz?” txostenean. 15 urtetik gorako 2000 laguni egindako galdeketan adierazitako iritzien azterketa esanguratsua eta argigarria da. Baina ez ditut hemen horiek azalduko, nahiago dut irakurleak bere ondorioak atera ditzan.

Agian Euskal Herriko hiritarrok etorkizuna “garapen jasangarriaren” mailan planteatzen hasteko garaia da. Eta horrek ongizate sozial eta ekonomiko gehiago sortzea esan nahi du, giza baliabide gehiago eta natur baliabide gutxiago erabiliz. Euskal Herriko ingurugiro--helburuak euskal gizarteak beretzat eta etorkizuneko belaunaldientzat nolako ingurugiro-kalitatea nahi duen hausnartzeko egindako prozesuaren emaitza izango da. Gizarte-eragile guztiek politikak zehazten eta erabakiak hartzen parte hartzen badute, elkartasun-balioak eta ingurugiroarekiko errespetua barneratzen lagunduko du.

Bihotzez eskertu nahi ditugu Siadecoren eta Kualitate Lan Taldearen ahalegin eta ardura, eta bereziki nabarmendu nahi ditugu Iñaki Martinez de Luna eta Miren Bilbao, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza saileko Prospekzio Soziologikoko Kabinetekoak. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu Euskal Herriko Ingurugiroko Esparru Programako Gizarte Laneko Taldekoei, euren ekarpenengatik, hausnarketengatik eta lan honetan lortutako emaitzen azterketarengatik.

Si tan importante es conocer los problemas que afectan a nuestro medio ambiente, también es fundamental saber qué es lo que opinan los ciudadanos y ciudadanas vascas sobre este valor natural. Los problemas que le afectan, los agentes que los causan, las posibles soluciones. Toda esta información ha quedado recogida en el “Ecobarómetro Social 2001: ¿Qué opina la población vasca sobre el Medio Ambiente?. El análisis de las opiniones vertidas en la encuesta realizada a 2000 personas mayores de 15 años resulta significativo y revelador. Pero, no las voy a revelar aquí, prefiero que sea el propio lector el que saque sus propias conclusiones.

Quizá sea el momento adecuado para que la ciudadanía del País Vasco empiece a plantear términos como el “desarrollo sostenible”, lo que significa producir más bienestar social y económico usando más recursos humanos y menos recursos naturales. Los objetivos ambientales del País Vasco han de ser fruto de un proceso de reflexión sobre el tipo de calidad ambiental que la sociedad vasca está dispuesta a aceptar para sí y para las generaciones venideras. La participación de todos los agentes sociales en la configuración de políticas y la toma de decisiones contribuirá a interiorizar los valores de solidaridad y respeto al medio ambiente.

Agradecer sinceramente el esfuerzo y dedicación realizado por las empresas Siadeco y Kualitate Lan Taldea, y una especial consideración para Iñaki Martínez de Luna y Miren Bilbao del Gabinete de Prospección Sociológica de Presidencia del Gobierno Vasco, por su dirección en todo el trabajo. Agradecer a los miembros del Grupo de Trabajo Social del Programa Marco Ambiental del País Vasco sus aportaciones, reflexiones y análisis de los resultados obtenidos en este trabajo.

# Sarrera

2001 Ekobarometro Soziala beste ikerketa zabalago bateko elementu aipagarrienen laburbilduma da. Ikerketa zabalago hori Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren Ingurugiro Bizipenari buruzko Gizarte Galdeketa da.

Ikerketa horren oinarrizko helburuak honakoak izan dira:

- EAEko gizartean dauden gizarte-inguruneak aztertzea, ingurune horiek bizitzaren aurrean planteamendu nahikoa homogeneoak dituzten pertsona-talde gisa ulertuta. Hain zuzen, ingurune horiek definitzeko erabilitako adierazleak honakoak izan dira: bizitzako helburuak, bizitzeko modua, aisia eta denbora librea eta familia eta gizarte-harremanak.
- EAEko ingurugiro-bizipeneko taldeak segmentatu eta karakterizatzea; alegia, ingurugiro-jarrera berdinak dituzten pertsona-talde homogeneoak definitzea. Horretarako erabili diren adierazleak honakoak izan dira: naturaren pertzepzioa, ingurugiro-kontzientziazioa, tokiko/nazioarteko ikusmoldea, aurrerapen teknologikoa eta ingurugiroa eta ingurugiroari buruzko informazioa.
- Ingurugiro-bizipeneko taldeek erabiltzen dituzten komunikazio-kanalak aztertzea, informazio-kontsumoaren maila, ingurugiroari buruz zein informazio jasotzen duten eta komunikabideetan duten konfiantza jakiteko.

Ikerketa hori egiteko bi teknika erabili dira:

- **Kualitatiboak:** sakoneko elkarrizketak eta eztabaida-taldeak informatzaile kualifikatuekin.
- **Kuantitatiboak:** EAEko 15 urte edo gehiagoko biztanleen lagin adierazgarriari 2.000 galdeketa egitea.[1]

[1] Landa-lana (galdeketak betetzea) 2000. urteko urriaren 16tik azaroaren 17a bitartean egin zen.
% 95.5eko konfiantza-mailarako laginketa aleatorio sinplea baldintza okerrenetan (p=q=0,5) egin dela susposatuz, datu globalen laginketa-errorearen marjina % +/- 2,2koa da.

# Introducción

El Ecobarómetro Social 2001 es una síntesis de los elementos más destacables de una investigación más amplia denominada Consulta Social sobre Vivencia Medioambiental de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Los objetivos básicos de esta investigación han sido los siguientes:

- Analizar los diversos entornos sociales existentes en la sociedad de la CAPV, entendidos como grupos de personas relativamente homogéneos en sus planteamientos ante la vida. En concreto, los indicadores utilizados para llegar a definir estos entornos han sido los siguientes: objetivos ante la vida, el estilo de vida, ocio y tiempo libre y familia y relaciones sociales.
- Segmentar y caracterizar a los distintos grupos de vivencia medioambiental de la CAPV, es decir, llegar a definir grupos de personas homogéneos en su posicionamiento en relación con el medio ambiente. Los indicadores que se han utilizado para ello han sido los siguientes: percepción de la naturaleza, concienciación medioambiental, orientación local/internacional, progreso tecnológico y medio ambiente e información medioambiental.
- Analizar los diversos canales de comunicación a los que acceden los distintos grupos de vivencia medioambiental a fin de conocer su nivel de consumo informativo, la información sobre medio ambiente que perciben y su confianza en los medios de comunicación

Para la realización de esta investigación se han utilizado dos tipos de técnicas de investigación:

- **Cualitativas:** entrevistas en profundidad y grupos de discusión con informantes cualificados.
- **Cuantitativas:** realización de 2000 encuestas a una muestra representativa de la población de la CAPV de 15 y más años de edad.[1]

[1] El trabajo de campo (cumplimentación de las encuestas) se realizó entre el 16 de octubre y el 17 de noviembre del año 2000.
Para un nivel de confianza del 95.5% y en el supuesto de realización de un muestreo aleatorio simple en las peores condiciones (p=q=0,5) el margen de error muestral de los datos globales es del +/- 2,2%.

Bestalde, lan-prozesuan estatuan, Europan eta munduan egindako antzeko azterketak ere izan dira kontuan. Besteak beste honakoak:

- “What do europeans think about the environment?”, 1999ko 51.1 Eurobarometroaren testuinguruan Europako Batzordeak egindako ikerketa.
- “Estudio sobre los hábitos de consumo y medio ambiente en España” Entorno Fundazioak 2000an egina.
- “The Environmental Monitor. Global Public Opinion in the Environment”, 1999ko Environics International-ena.
- Herbeheretako ingurugiro-bizipeneko taldeei buruzko azterketa, VROMek 1999an egina.

Ondoren, lehenago aipatutako ikerketa orokorreko proiektutik abiatuz egindako dokumentu hau egituratzen duten ardatzak zehaztu dira:

- Gizartearen ingurugiroari buruzko kontzientziazioa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-egoeraren bilakaera eta eragileek burututako ekintzak.
- Ingurugiroari buruzko informazio-maila.
- Ingurugiroarekiko konpromisoa.
- Norbere inplikazioa ingurugiroa babesteko.
- Kontsumoa eta ingurugiroa.
- Ingurugiro-arazoei dagokienez iradokitako irtenbideak.
- Ingurugiroarekiko hiritar-motak: ingurugiro-bizipeneko taldeak.
- Ondorio nagusiak.

Por otro lado, en el proceso de trabajo se han tenido en cuenta estudios similares realizados a nivel del Estado, Europa y el mundo que han servido de referencia. Estos estudios han sido los siguientes:

- “What do europeans think about the environment?”, Investigación realizada por la Comisión Europea en el contexto del Eurobarómetro 51.1 de 1999.
- “Estudio sobre los hábitos de consumo y medio ambiente en España” realizado por la Fundación Entorno en el año 2000.
- “The Environmental Monitor. Global Public Opinion in the Environment” de Environics International del año 1999.
- Grupos de vivencia ambiental en los Países Bajos del VROM del año 1999.

A continuación se señalan los ejes de contenido que estructuran el presente documento elaborado a partir del proyecto de investigación general previamente apuntado:

- Grado de concienciación social en relación con el medio ambiente
- Evolución de la situación medioambiental y acciones desarrolladas por distintos agentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Grado de información sobre medio ambiente.
- Compromiso con el medio ambiente.
- Implicación personal en la defensa del medio ambiente.
- Consumo y medio ambiente.
- Soluciones sugeridas en relación con los problemas de medio ambiente.
- Tipología de ciuadadano/as ante el medio ambiente: grupos de vivencia medioambiental.
- Principales conclusiones.

# Euskal Herritarren Ingurugiroari Buruzko Kontzientziazioa 1

# 1 Conciencia Medioambiental de la Ciudadanía Vasca

Ingurugiroaz gizarteak zer ulertzen duen jakiteko lehen urratsa, kontzientziazio-iturriak zeintzuk diren jakitea eta hori eguneroko bizimoduan beren jarreretan eta jokamoldeetan nola gauzatzen den ikustea da. Beraz, gai honi buruz gizarteak duen diskurtsoaren funtsezko alderdiak, alegia, hiritarren ustez garrantzia eta gaurkotasuna duten gaiak, zehaztuko dira.

Pertsona bakoitzak bere definizioa egin ohi du ingurugiroaz, alderdi batzuei ala beste batzuei garrantzia emanez. Baina euskal hiritarren diskurtsoan badira ingurugiroaz dihardutenean ardatz komun batzuk eta ardatz horiek dira hain zuzen atal honetan bildu direnak.

## 1.1 Zeintzuk dira ingurugiro-kezka nagusiak?

Ingurugiroa hobetzea planeta osoko hiritarren kezka gero eta handiago da, gizarteak, oro har, lortu behar dituen helburuetan nagusia delarik.

Euskal Autonomia Erkidegoan hiritarren oraingo kezka nagusiak, beren bizi-kalitateari zuzenean eragiten diotenak dira, alegia, gatazka politikoa eta soziala murriztea eta aberastasuna eta lana sortzea. Ingurugiroa, norbere bizi-baldintzetan ondorio garrantzitsuak dituen faktore gisa, biztanleen % 4ak aipatu du helburu nagusia dela.

Baina, etorkizuneko kezkei buruz galdetzean, ingurugiroa da erantzunetan gehien aipatzen den gaia.

La primera aproximación a la percepción que la sociedad tiene del concepto de medio ambiente, se refiere a cuáles son las fuentes de concienciación y cómo se plasma en sus actitudes y conductas en la vida cotidiana. En definitiva se trata de determinar los puntos clave del discurso social sobre este tema, que para las opiniones de los/as ciudadanos/as tienen relevancia y actualidad.

Cada persona tiende a fabricar su propia definición de medio ambiente, poniendo el peso en unos u otros aspectos, pero existen una serie de ejes comunes en los discursos de la ciudadanía vasca, cuando hablan del tema medioambiental, y estos ejes son los que se recogen en este apartado.

## 1.1 ¿Cuáles son las principales preocupaciones medioambientales?

La mejora del medio ambiente es una preocupación creciente para la ciudadanía de todo el planeta colocándose entre los principales objetivos que deben ser alcanzados por la sociedad en su conjunto.

En la Comunidad Autónoma del País Vasco las principales preocupaciones de los/as ciudadanos/as, son aquellas que afectan directamente a su calidad de vida, como la reducción de la conflictividad política y social, la creación de riqueza y el empleo. El medio ambiente, como factor que tiene consecuencias importantes para las condiciones de vida individuales, es señalado como objetivo principal para un 4 % de la población.

Sin embargo, como preocupación de futuro el medio ambiente constituye el factor de mayor relevancia para los encuestados.

**1. grafikoa:** Zein da EAEk oraingo duen helburu nagusi eta 10 urte barrutako?

**Gráfico 1:** ¿Cuál es el objetivo más importante para la CAPV en la actualidad? ¿Y dentro de 10 años?




## 1.2 Ingurugiro-arazo nagusiak

EAEko hiritarrei beraientzat kezka-iturri nagusia diren ingurugiro-arazoei buruz galdetzea, airearen eta uraren poluzioarekin, industria-hondakinekin eta hiri-poluzioarekin (zaratekin eta zirkulazioarekin) zerikusia dutenak direla erantzuten dute. Azkenik, lurzoruaren poluzioa, natur baliabideak agortzea eta espezieak desagertzea ere aipatzen dituzte kezkatzen dituzten gaietan.

Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren etorkizuneko kezkak hartua, ordea, airearen poluzioaren arazoa da lehen tokian dagoena, eta horixe da, hain zuzen Europako herrialde gehienetako oraingo joera.

## 1.2 Principales problemas medioambientales

En cuanto a los problemas medioambientales que preocupan en la actualidad de manera significativa a los/as ciudadanos/as de la CAPV, destacan los relacionados con la contaminación del aire y del agua, los residuos industriales y la contaminación urbana (ruidos, tráfico). En último término, se muestran preocupados por aspectos como la contaminación del suelo, el agotamiento de recursos naturales y la desaparición de las especies.

Si comparamos las preocupaciones futuras de la población en el marco de la Comunidad Autónoma del País Vasco con las actuales, se observa que la contaminación del aire se destaca como primer problema coincidiendo con la actual tendencia registrada en la mayoría de países europeos.

**2. grafikoa:** Ingurugiro-kezka nagusien ranking-a (oso+nahikoa kezkatua).

**Gráfico 2:** Ranking de las principales preocupaciones medioambientales (muy+bastante preocupado).




**3. grafikoa:** Zein izango da zure ustez etorkizunean EAEko ingurugiro-arazo nagusia?

**Gráfico 3:** ¿Cuál cree que va a ser el principal problema medioambiental de la CAPV en el futuro?



Hiri-ingurunea da euskal herritar gehienen habitata. Eta horri buruz galdetutakoan, Euskal Autonomia Erkodegoaren hiru biztanletik batek ibilgailuen zirkulazioaren ondorio diren poluzioa eta arazoak –zaratak, keak– eurengan eragin handia dutela erantzuten dute.

El entorno urbano sirve de hábitat a la gran mayoría de vascos/as. En este aspecto, dos de cada tres habitantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco manifiestan que la contaminación y las molestias debidas al tráfico de vehículos –ruido, humo– les afecta de manera importante.

**4. grafikoa:** Nola eragitendio zure bizitzari ibilgailuen zirkulazioak eragindako poluzioak eta arazoak?

**Gráfico 4:** ¿Cómo le afectan en su vida la contaminación y las molestias debidas al tráfico de vehículos?



# 2 Ingurugiro-Egoeraren Bilakaera eta Eragileen Jarduerak

# 2 Evolución de la Situación Medioambiental y Acciones Desarrolladas por Distintos Agentes

Ingurugiroari buruzko arazoen aurrean euskal gizarteak duen jarrera eta iritzia aztertu ondoren, ingurugiro-arazoetan zerikusi handia duten honako eragileei buruz hiritarrek duten iritzia azalduko da: euskal administrazio publikoaz, unibertsitateez, talde ekologista eta enpresez.

Hamar pertsonatik seiren (% 60ren) ustez, Euskal Autonomia Erkidegoko poluzioaren eragile nagusiak fabrikak dira; alegia, industria-jarduera. Hamarretik birentzat, berriz, garraiabideak (automobilak, hegazkinak,..) dira poluzio-sortzaile nagusiak.

Una vez revisada la actitud y posicionamiento de la sociedad vasca frente a los problemas que afectan al medio ambiente, a continuación se dará un repaso a la valoración que la ciudadanía tiene de los agentes sociales con un papel importante en relación a los problemas medioambientales como son: las administraciones públicas vascas, universidades, grupos ecologistas y empresas.

Seis de cada diez personas (60%) perciben que el principal agente causante de la contaminación en la Comunidad Autónoma del País Vasco son las fábricas, es decir la actividad industrial, mientras que para 2 de cada 10, los principales agentes causantes de la contaminación son los diversos medios de transporte (coche, avión...).

**5. grafikoa:** Zein da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-poluzioaren eragile nagusia?

**Gráfico 5:** ¿Cuál es el principal causante de la contaminación ambiental existente en la Comunidad Autónoma del País Vasco?



## 2.1 EAEn ingurugiroaren arloan egindako lana

Ia biztanleen erdiaren ustez, erakunde lokalek eta autonomikoek ingurugiroari dagokionez egindako lana positiboa izan da. Beste erakunde batzuei, ordea, hala nola Gobernu Zentralari, Nazio Batuen Erakundeari edo Europako Batasunari balio negatiboa ematen diete.

Herri- eta Erkidego-mailan Ingurugiroari dagokionez egindako lanari gehienek balorazio positiboa ematen dioten arren, galdeketari erantzun dioten biztanleen erdiak EAEn ingurugiroa babesteko egin beharko litzatekeen baino gutxiago egiten dela pentsatzen du.

Ingurugiroaren alde lana gehien nork egiten duen galdetuta, inkestatuek lehen tokian hiritarrak jartzen dituzte eta bigarrenean administrazioa eta, hortik nahiko urruti, enpresak daude; bere ustez ingurugiroa babesteari dagokionez inplikazio txikiagoa duten eragileak, hain zuzen.

Hiritarrek egiten dituzten ahaleginak administrazioak egiten dituenarekin alderatzean, galdetutako bitik batek hiritarrek administrazioak baino gehiago egiten dutela uste dute eta hirutik batek kontrakoa pentsatzen du.

## 2.1 Trabajo desarrollado en la CAPV en materia medioambiental

Prácticamente la mitad de la población valora de manera positiva el trabajo desarrollado desde las instituciones locales y autonómicas en relación con el medio ambiente. Sin embargo instituciones como el Gobierno Central o la Organización de Naciones Unidas (ONU) o la Unión Europea (UE) reciben una valoración negativa.

A pesar de que el trabajo realizado por el Medio Ambiente a nivel autonómico y local sea bien valorado mayoritariamente, la mitad de la población consultada estima que en la CAPV se está haciendo menos de lo que se debiera hacer para proteger el medio ambiente.

Analizando la opinión sobre los agentes que desarrollan un mayor esfuerzo a favor del medio ambiente, en primer lugar los encuestados sitúan a la ciudadanía seguida de la administración, y a considerable distancia estarían las empresas, como agente con menor implicación en la protección del medio ambiente.

Al comparar los esfuerzos de la ciudadanía con los de la administración, una de cada dos personas consultadas opina que la ciudadanía hace mayores esfuerzos que la administración, mientras que una de cada tres opina lo contrario.

**6. grafikoa:** Zure ustez nolako bilakaera izan du ingurugiroaren egoerak honako eremuetan?

**Gráfico 6:** ¿Cómo cree usted que ha evolucionado la situación del medio ambiente en los siguientes ámbitos espaciales?




ECOBARÓMETRO SOCIAL 2001

**7. grafikoa:** Ingurugiroari dagokionez, EAEn behar baino gehiago, beharrezkoa ala behar baino gutxiago egiten ari da?

**Gráfico 7:** En materia de medio ambiente ¿en la CAPV se está haciendo más de lo suficiente, lo suficiente o menos de lo suficiente?




## 2.2 Euskal enpresek ingurugiroaren hobekuntzan duten eragina

Poluzioa oinarrizko erreferentea da ingurugiroaren kontzeptuari esanahia emateko. Gure industria-iraganarekin elkarturiko elementua eta industria astunak EAEn izan duen jarduerarekin estu lotuta dago. Desindustrializazio-prozesuak eta eskualde askotan martxan jarritako berrindartze-prozesuak ikusirik, argi dago industria--garaiak gure inguruan ingurugiroari kalte handiak eragin dizkiola.

Elementu "bisual" honen bidez, hiru pertsonatik batek poluzioaren eragile nagusiak fabrikak direla uste du eta, orain Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak ingurugiroa hobetzeko lan handia egiten ari direla dioen baieztapenarekin ez daude ados.

Ingurugiroa babesteko enpresa-jarduerari buruzko ikuspegi kritiko hori bat dator Europako Mediterraneoko herrialdeetan adierazitakoarekin.

## 2.2 Implicación actual de las empresas vascas en la mejora del medio ambiente

La contaminación es un referente básico a la hora de dar sentido al concepto del medio ambiente. Es un elemento asociado a nuestro pasado industrial y consustancial a la actividad que la industria pesada ha tenido en la CAPV. El proceso de desindustrialización y los procesos de revitalización emprendidos en muchas zonas han dejado ver de forma nítida los efectos nocivos que para el medio ambiente ha provocado la etapa industrial sobre nuestro entorno.

A través de este elemento "visual", dos de cada tres personas consideran que las fábricas son el principal causante de la contaminación y están en desacuerdo con la afirmación de que las empresas de la Comunidad Autónoma del País Vasco actualmente estén trabajando seriamente para asegurar un medio ambiente mejor.

Esta percepción crítica sobre la actuación empresarial para proteger el medio ambiente coincide con la registrada en países europeos mediterráneos.

**8. grafikoa:** Enpresak ingurugiroa hobetzeko zorrotz jokatzen ari direla dioen iritziari buruzko adostasun-mailaren ikuspegi konparatua: EAE - beste zenbait herrialde

**Gráfico 8:** Visión comparada sobre el grado de acuerdo en relación con la opinión de que las empresas están trabajando seriamente para asegurar un medio ambiente mejor: CAPV - otros países




ECOBARÓMETRO SOCIAL 2001

# 3 Ba al dute Informaziorik EAEko Biztanleek?

# ¿Están los Habitantes de la CAPV Informados?

Azkenaldian ingurugiroa zaindu beharrari buruzko diskurtsoa txertatu da euskal gizartean eta horrek, jakina, ingurugiroa eguneroko bizimoduan kontuan izateko lehentasunak aurrera egin dezan laguntzen du.

Informazioa pertsonek ingurugiro-arazoen garrantziaz kontzientzia har dezaten laguntzen eta sustatzen duen funtsezko elementua da; hiritarrentzat horixe da bizi-ohiturak aldatzea eta naturarekiko errespetu handiagoko ekintzak burutzea eragingo duen sentsibilizazioa garatzeko oinarria.

## 3.1 Ekiteko informazioa

Hiritarrek ingurugiroari buruz duten informazioa kontuan hartuz gero, EAEko biztanleak bi multzo nahikoa berdinetan banatzen dira: hiritarren % 50ak informazio asko edo nahikoa duela uste du eta beste 50ak batere informaziorik ez duela edo oso gutxi duela.

En los últimos tiempos, el discurso sobre la necesidad de cuidar el medio ambiente ha calado en la sociedad vasca, lo que sin duda va a favorecer que el medio ambiente esté más presente en la vida cotidiana y ocupe una posición más alta en la escala de prioridades.

La información es un elemento clave que permite y posibilita que las personas tomen conciencia de la importancia de los problemas medioambientales; para los/as ciudadanos/as, es ésta la base sobre la que se debe levantar una sensibilización que implique cambios en los hábitos de vida y prácticas más respetuosas con la naturaleza.

## 3.1 Información para la acción

En cuanto a la información ambiental con la que cuentan los/as ciudadanos/as, se produce una división de la población de la CAPV en dos bloques prácticamente homogéneos: casi un 50% de la ciudadanía se considera muy o bastante informada y otro 50% poco o nada informada.

**9. grafikoa:** Ingurugiro-arazoei buruz duzun informazioa zenbaterainokoa da zure ustez?

**Gráfico 9:** ¿En qué medida se considera usted una persona informada sobre los problemas medioambientales?



Datu horiek estatu-mailan lortutakoekin alderatuz gero, joera antzekoa dela ikusten da, nahiz eta estatuan ingurugiroari buruzko informaziorik ez dutela edo oso informazio gutxi dutela esaten dutenen ehunekoa pixka bat handiagoa izan (% 55).

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek komunikabideetatik jasotzen duten informazioarekin eratzen dute ingurugiroari buruzko beren iritzia. Telebista, prentsa idatzia eta irratia dira EAEko biztanleek ingurugiroari buruzko informazio gehien jasotzeko bideak. Edonola ere, inkestatuek oso kontuan izaten dute beren lagunek esandakoa. Azkeneko informazio-kanal horren bidez jasotzen duten informazioa eta ingurugiroan espezializatutako argitalpenen bidez jasotzen dutena parekoak dira.

Interneti dagokionez, eta gero eta gehiago erabiltzen den arren, 4tik 3k bide horretatik ez duela inolako informaziorik jasotzen erantzun dute. % 1ak esaten du informazio asko jasotzen duela.

Comparando estos datos con los obtenidos a nivel del Estado, se observa una tendencia similar, si bien a nivel estatal las personas que manifiestan estar poco o nada informadas sobre los problemas medioambientales representan un porcentaje algo superior (un 55%)

La población de la Comunidad Autónoma del País Vasco forma su opinión sobre el medio ambiente a través de la información que recibe de los medios de comunicación. La televisión, la prensa escrita y la radio son los medios de comunicación por los que la población de la CAPV recibe más cantidad de información ambiental. En cualquier caso, los/as encuestados/as, prestan una atención considerable a los comentarios realizados por sus círculos de amistades. Este último canal de información se equipara a la información que reciben a través de publicaciones especializadas en medio ambiente.

En el caso de Internet y a pesar de que constantemente está creciendo su uso, 3 de cada 4 personas afirman no recibir ningún tipo de información medioambiental por esta vía, frente a un 1 % que declara recibir mucha.

**10. grafikoa:** Hurrengo eragileek ingurugiroari buruzko informazioa egokia emango dizutenari buruz zenbaterainoko konfiantza duzu?

**Gráfico 10:** ¿Cuánta confianza tiene en que cada uno de los siguientes agentes le de información correcta sobre temas de medio ambiente?



Biztanle gehienentzat, ingurugiroari buruz gizarteratzen duten informazioari dagokionez, eragile fidagarrienak honakoak dira: Administrazioaz kanpoko sektore-izaerako erakunde eta elkarte sozialak (ingurugiroa eta kontsumitzaileak babesteko elkarteak), zientzia--ikerkuntzarako elkarteak eta, neurri apalagoan, komunikabideak.

Herrietako eta erkidegoko erakundeei dagokienez, herritarrengandik zenbat eta gertuago egon, dagokion administrazio-eremutik jasotako ingurugiro-informazioarekiko konfiantza-maila handiagoa duten biztanleak gehiago dira. Ematen duten informazioarekiko eszeptikotasun handiena eragiten dutenak Europako Batasuna, Gobernu Zentrala eta enpresak edo industria direla ere esan beharra dago.

## 3.2 Ingurugiro-etiketen berri izatea

EAEko biztanleen erdiak, gutxi gorabehera, ez du kontuan hartzen edo oso gutxitan erreparatzen dio erosten dituen produktuen etiketetan dagoen informazioari. Dena den, aipatu beharra dago, informazio hori beti edo askotan irakurtzen dutenak 10etik 4 direla.

Produktuen etiketen bidez jasotzen duten informazioarekiko hiritarrek duten sinesgarritasuna edo konfiantza faktore erabakigarria da. Produktuetako informazioan konfiantza handia dutenak hamar lagunetik sei dira eta hamarretik hiruk konfiantza txikia dutela esaten dute.

Para la mayoría de la población los agentes que ofrecen una mayor credibilidad, en relación con la información sobre medio ambiente que divulgan, son las organizaciones y entidades sociales de carácter sectorial externas a la Administración (medio ambiente, defensa de la población consumidora), las instituciones dedicadas a la investigación científica y, en menor medida, los medios de comunicación.

Respecto a las instituciones locales y autonómicas, se observa que cuanto mayor es la proximidad a la ciudadanía, mayor es la proporción de población que muestra un grado de confianza significativo en la información medioambiental recibida del ámbito administrativo correspondiente. También debemos señalar que las entidades que generan un mayor escepticismo sobre la información que proporcionan son la Unión Europea, el Gobierno Central y las empresas o industria.

## 3.2 Conocimiento de etiquetas ambientales

Prácticamente la mitad de la población de la CAPV se fija poco o nada en la información ambiental que proporcionan las etiquetas de los productos que compra, aunque también es significativo que algo más de 4 de cada 10 personas se fija en la información siempre o bastantes veces.

La credibilidad y confianza en la información que los/as ciudadanos/as reciben a través de las etiquetas de los productos es otro factor determinante. Seis de cada diez personas poseen una confianza elevada en la veracidad de la información contenida en los productos, mientras que tres de cada diez muestran una confianza escasa.

**11. grafikoa:** Begiratzen al duzu erosten dituzun produktuek ingurugiroari nola eragiten dioten azaltzen duten etiketarik baduten?

**Gráfico 11:** ¿En qué medida suele fijarse en si los productos que compra tienen alguna etiqueta que diga cómo afectan al medio ambiente?




ECOBARÓMETRO SOCIAL 2001

# Ingurugiroarekiko Konpromisoa

4

# 4 Compromiso con el Medio Ambiente

Prest ote daude EAEko hiritarrak ingurugiroa babesten laguntzeko beren bizimoduetako alderdi batzuk aldatzeko? Atal honetan ingurugiroarekiko gizarte-konpromisoa zein elementu errealetan gauzatzen den azaltzen da lehenengo eta, ondoren, talde desberdinen portaera eta motibazioak.

¿Está la ciudadanía de la CAPV realmente dispuesta a cambiar algunos aspectos de su estilo de vida para contribuir a la protección del medio ambiente? En este apartado se presentan los elementos reales en los que se plasma el compromiso social con el medio ambiente y finalmente el comportamiento y las motivaciones de los diferentes colectivos.

## 4.1 Hazkunde ekonomikoak nola eragiten du ingurugiroan?

EAEko bi biztanletik batek ingurugiroak hazkunde ekonomikoak baino garrantzi handiagoa duela dio. Iritzi hori bat dator Europako gainerako herrialdeetan dutenarekin, nahiz eta azken horietan, ingurugiroaren babesari lehentasuna ematen diotenen ehunekoa EAEkoa baino handiagoa izan. Horrek, gure gizartean dagoena baino ingurugiro-balorazio eta –kontzientziazio handiagoa erakutsiko luke.

## 4.1 Crecimiento económico ¿cuáles son sus implicaciones para el medio ambiente?

Uno/a de cada dos habitantes de la CAPV considera que el medio ambiente es prioritario frente al crecimiento económico. Esta opinión coincide con lo que sucede en el resto de países de Europa, si bien en estos últimos, el porcentaje de personas que priorizan la protección del medio ambiente supera al registrado en la CAPV, lo que, en principio, apunta a una mayor valoración y concienciación medioambiental de la que existe en nuestra sociedad.

**12. grafikoa:** Zerk du lehentasuna, hazkunde ekonomikoak ala ingurugiroa zaintzeak?

**Gráfico 12:** ¿Qué debe ser lo primero, el crecimento económico o el cuidado del medio ambiente?



Gizartearen zati handiak badaki oraingo bizimodua ingurugiroarentzat kaltegarria dela, eta, beraz, aldatu beharra dagoela. Halaber, euskal biztanleen erdiak baino gehiagok onartzen du jendea ez dagoela ingurugiroarekin oso kezkatuta eta teknologiak ez dituela ingurugiro--arazoak konponduko. Baina, biztanleen erdiak baino gehiagok ez du hazkunde ekonomikoa beti ingurugiroari kalte eginez gertatzen denik uste. Alegia, aldatu beharra ikusten den oraingo bizimodua eta garapena ez dira hazkunde ekonomikoarekin lotzen.

Existe una gran mayoría social consciente de que el actual modo de vida y de desarrollo es perjudicial para el medio ambiente y que, en consecuencia, es preciso cambiarlo. Al mismo tiempo, más de la mitad de la población vasca reconoce que la preocupación de la gente respecto al medio ambiente no es excesiva y que la tecnología no servirá para solucionar los problemas medioambientales. Sin embargo, más de la mitad de la población no considera que el crecimiento económico siempre se produzca a costa del medio ambiente. De alguna manera, el actual modo de vida y desarrollo que se reconoce necesario cambiar no se relaciona directamente con el crecimiento económico

**13. grafikoa:** Oraingo bizimoduak eta aurrerapen ekonomikoak ingurugiroan duten eraginari buruzko iritziak

**Gráfico 13:** Opiniones relativas a las implicaciones del actual modelo de vida y del progreso económico sobre el medio ambiente.




## 4.2 Ingurugiro-gaiarekiko jarrera pertsonalak

Lurra jasaten ari den kalteak kontuan izanik neurriak hartu beharraren kontzientzia, lurraren eta geroko belaunaldien etorkizunarekiko kezkak eragindakoa da. Hiritarrek badute ingurugiroari dagokionez beren esku dagoena egiteko gogoa. Gizartea ari da ingurugiro-arazoak barneratzen eta horrek sortutako arazoak larriagotu eta konponezin bihurtzea galarazten lagunduko duen zer edo zer egiteko beharra sentitzen du.

## 4.2 Actitudes personales hacia la cuestión medioambiental

La conciencia de la necesidad de tomar medidas ante la constatación de daños que sufre el planeta tiene su origen en la preocupación por el futuro del mismo y de las generaciones venideras. Existe una inquietud entre los/as ciudadanos/as por hacer lo que está dentro de sus posibilidades por el medio ambiente. Los problemas medioambientales van siendo interiorizados por la sociedad, lo que genera esa necesidad de aportar y de hacer algo que contribuya a evitar que se agudicen y se conviertan en irremediables.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle gehienek badakite ingurugiroarekiko mehatxuak benetakoak direla: 10 lagunetik ia 8k ingurugiroarekiko aipatzen diren mehatxuak gehiegizkoak ez direla diote.

Biztanleen % 64 ingurugiroarekiko konpromiso pertsonala handia dela onartzen du, nahiz eta beste pertsona batzuek horrela jokatu ez. Halaber, gehienek (10 lagunetik 6ik), asko kostatu gabe, ingurugiroaren alde egiten dutena baino gehiago egin dezaketela uste dute

## 4.3 Ingurugiroa hobetzeko zertaraino gaude prest?

Hiritarren euren ustez kontzientziazioa areagotu egin da eta ingurugiroa zaintzeko kezka badago. Baina, zer egiteko prest gaude gure eguneroko jardunean ingurugiroa babesteko edo babesten laguntzeko?

EAEko hiritar batzuk beren ekonomiaren zati bati uko egin eta ehuneko hori ingurugiroan inbertitzeko prest daudela diote. Praktikan horrek ingurugiroarentzat horren kaltegarriak ez diren produktuak erosteagatik gehixeago ordainduko luketela esan nahi du, baina ekarpen horri mugak ere jartzen dizkiote.

Jendeak honako produktuak erosteagatik % 10 gehiago ordaintzeko prest dagoela dio: ekologia kontuan izanik ekoitzi diren elikagaiak, horren poluitzaileak ez diren garbigarriak eta poluzio txikiagoa eragingo duen automobila. Horrez gain, biztanleen erdiak etxe-kontsumoko elektrizitatea ere % 10 gehiago ordainduko lukeela dio, baldin eta poluzio gutxiago eraginez ekoizten bada.

Biztanleen erdiak, ordea, zalantza gehiago ditu hurrengo neurrietan nahiz eta ingurugiroa babesteko direla jakin: bizi-maila pertsonalean murrizketak izatea, zergak % 10 gehiago ordaintzea (ingurugiroaren gaineko zerga) edo erregaia % 10 gehiago ordaintzea.

La gran mayoría de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco se muestra convencida de la seriedad de las amenazas que se ciernen sobre el medio ambiente: casi 8 de cada 10 personas están de acuerdo con que las amenazas sobre el medio ambiente no son exageradas.

Un 64% de la población, reconoce que el compromiso personal en materia de medio ambiente es importante independientemente de que otras personas no actúen del mismo modo. De igual manera, la mayoría reconoce que puede hacer más de lo que hace a favor del medio ambiente sin grandes dificultades (6 de cada 10 personas).

## 4.3 ¿Qué estamos dispuestos a hacer para mejorar el medio ambiente?

La propia ciudadanía muestra que la concienciación ha aumentado y que existe una preocupación por el cuidado del medio ambiente. Pero, ¿hasta dónde estamos dispuestos a llegar en nuestro día a día para proteger o colaborar en la protección del entorno?

Algunos/as de los ciudadanos/as de la CAPV comentan sentirse preparados/as para sacrificar parte de su economía e invertir este porcentaje en el medio ambiente. En la práctica esto significa que aceptarán pagar algo más por productos que son menos nocivos para el medio ambiente, pero también establecen límites a su aportación.

Aquellos productos por los que la mayoría manifiesta una disposición favorable a pagar un 10% más son los siguientes: alimentos que se hayan producido ecológicamente, productos de limpieza menos contaminantes y un coche menos contaminante. Junto con esto, la mitad de la población consultada expresa una disposición favorable a pagar un 10% más por la electricidad de consumo doméstico en el caso de que se produzca de forma no contaminante.

Sin embargo, la mitad de la población manifiesta una actitud reticente para realizar las siguientes acciones a pesar de estar orientadas a la protección del medio ambiente: aceptar recortes en el nivel de vida personal, pagar un 10% más de impuestos (impuesto sobre el medio ambiente) o pagar un 10% más por el combustible.

**14. grafikoa:** Zein neurritan zaude ondorengoak egiteko prest ingurugiroari kalte txikiagoa egiteko?

**Gráfico 14:** ¿En qué medida está dispuesto a realizar las siguientes acciones para perjudicar menos el medio ambiente?



# Euskal Biztanleek Ingurugiroan Parte-Hartzea

# 5 Participación de la Población Vasca en Medio Ambiente

Hiritarrek badakite ingurugiroa babesteak gizarte- eta ekonomia-eredua aldatzea (bizimodu latzagoa, beste kontsumo-ohitura batzuk,...) eskatzen duela; alegia, sakrifizioa. Baina hurrengo grafikoetan ikus daitekeenez, hiritarrek ingurugiroa babesteko gauza txiki batzuk soilik lagatzeko prest agertzen dira, horrek aurrerapenaren eta modernotasunaren ikur diren erosotasunak galtzea esan nahi baitu.

Los/as ciudadanos/as son conscientes de que la protección del medio ambiente reclama un cambio de modelo social y económico que implica austeridad, nuevos hábitos de consumo,... en definitiva, que implica sacrificio. Sin embargo los resultados que mostramos en los gráficos siguientes nos llevan a concluir que, la ciudadanía sólo está dispuesta a renunciar a pequeñas cosas para proteger al medio ambiente, ya que la renuncia supone pérdida de comodidades que se identifican como progreso y modernidad.

## 5.1 Motordun ibilgailuak erabiltzea

Gutxi gorabehera euskal biztanleen erdiak (% 50,2) ez du, normalean, gidatzen eta herenak (% 34,4k) astean 3tan edo gehiagotan gidatzen du. Azken horiek (10etik 3k) maiz erabiltzen du automobila asteburuetan eta ehuneko txikixeagoak lanera/ikastera joateko eta aisiarekin zerikusia duten jarduerak (zaletasunak, kirola) egitera joateko erabiltzen dute. % 20k maiz erabiltzen du erosketak egiteko eta % 10ek udalerrian batetik bestera joateko.

Gutxiago poluitzeko ibilgailu partikularra erabiltzeari utzi dioten galdetu zaienean, 10 lagunetik 4k praktikoki oso inplikazio txikia dutela onartzen dute eta 10 lagunetik bakarra da kontzienteki helburu hori lortzeko bere ibilgailua maiz (askotan edo dezentetan) erabiltzeari utzi diona.

Ibilgailua erabiltzen dutela diotenera mugatuta, % 50ek ia inoiz ez diola hori erabiltzeari utzi dio. Ohizko gidarien % 16k baino ez du erantzun gutxiago poluitzeko erabiltzeari utzi diola.

Gutxiago poluitzeko automobilik ez erabiltzeko benetako ohiturarik ez egon arren, egun jakin batzuetan autorik ez hartzeko jarrera badago (gidatzen duten biztanleen % 52).

## 5.1 Utilización del vehículo de motor

Aproximadamente la mitad de la población vasca (50.2%) no conduce su vehículo particular de forma habitual, mientras que un tercio (34.4%) conduce 3 o más días a la semana. Esta población, (3 de cada 10) lo utiliza de manera frecuente durante los fines de semana y un porcentaje ligeramente inferior lo hace para ir a trabajar/estudiar y para acudir a actividades relacionadas con el tiempo libre (aficiones, deporte). Un 20% lo utiliza de manera frecuente para realizar la compra y el 10% para desplazarse dentro de su municipio.

Consultados sobre si han dejado de usar su vehículo particular con la finalidad de contaminar menos, 4 de cada 10 personas reconocen su escasa implicación práctica y no llegan a ser más que una de cada 10 las personas que de, forma consciente, han dejado de usar el vehículo frecuentemente (muchas o bastantes veces) con esta finalidad.

Si nos concentramos en aquellos/as que declaran usar el vehículo, el 50% afirma no haber dejado de utilizarlo prácticamente nunca. Solamente un 16% de personas conductoras habituales señala haber dejado de utilizarlo con cierta frecuencia para así contaminar menos.

Aunque no existe una práctica real de dejar de utilizar el vehículo con intención de contaminar menos, sí existe predisposición a hacerlo en días determinados (52% de la población que conduce).

**15. grafikoa:** Normalean automobila, motorra edo motordun beste ibilgailuren bat gidatzen al duzu?

**Gráfico 15:** ¿Suele usted conducir habitualmente coche, moto u otro vehículo con motor?




Aipagarria da aldez aurretiko jarrera teorikotik ibilgailua gutxiago erabiltzeko benetako praktikara pasatzeko dagoen zailtasuna. Egoera hori, ingurugiroaren babesa asko baloratzen duen gizarte-diskurtsoaren eta gure eguneroko bizimoduan automobila erabiltzeak duen garrantziaren eta horren “beharraren” arteko dikotomiak sortzen du.

Es significativa, la dificultad que supone pasar de un nivel de predisposición teórica a una práctica real de utilizar el vehículo en menor medida; situación que puede explicarse por la dicotomía existente entre el discurso social que valora altamente la protección del medio ambiente en contraste con la importancia y ”necesidad” que ha adquirido la utilización del vehículo en nuestra vida cotidiana.

**16. grafikoa:** Utzi al diozu zure motordun ibilgailua erabiltzeari gutxiago poluitzeko?

**Gráfico 16:** ¿En qué medida ha dejado de usar el vehículo de motor con la intención de contaminar menos?



## 5.2 Etxeko zaborrak eta birziklatzea

Hiritarrek gehien onartzen duten edo egiten duten jardueretako bat birziklatzea da, batzuk gure ingurunea babesteko neurri gogorragoak ez hartzeagatik barrua lasaitzeko besterik ez dela esanez hori kritikatzen duten arren.

Biztanle gehienek, etxeko zaborra birziklatu ahal izateko sailkatu eta bereizi egiten duela esaten du. Batez ere papera/kartoia eta beira (10 lagunetik 7k) eta pilak (proportzio txikixeagoa) sailkatzen dituztela diote.

Plastikoak eta metalak dira gutxien sailkatzen direnak, % 60k maiz bereizten dituztela esan arren.

## 5.3 Taldekako eta banakako ekintza puntualak eta erreibindikaziokoak ingurugiroari dagokionez

Puntu honi dagokionez, euskal gizartea dauden arazoak bereganatu eta neurriak hartu behar direla kontzientzia hartu duen fasean dagoela esan daiteke, baina ingurugiroa zaintze horrek bere bizimodua, nabarmen behintzat, aldatzen ez duen heinean.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle gehienek ez dute ingurugiroari dagokionez inolako jarduera edo ekintza erreibindikatibo edo kontsultiborik egin. Populazioaren ehuneko handiagoak (10etik 4k) egiten duena eskaera edo manifesturen bat sinatzea izaten da.

Kanpo-jarduera gehiagotan (askotan edo dezentetan) parte hartu dutela aipatzen duten pertsonen ehunekoa, lehenago aipatutako kasuan izan ezik, populazioaren % 10ekoa baino txikiagoa da beti.

Talde ekologista edo natura babesteko elkarteren bateko kide direla esaten dutenen portzentaia % 2,6koa da.

## 5.2 Residuos domésticos y el reciclaje

Uno de los aspectos que mayor aceptación tiene o mayoritariamente se realiza por parte de los/as ciudadanos/as es el reciclaje, aunque algunos alzan voces críticas contra él, al considerarlo un lavado de conciencia ante la negativa de llevar a cabo acciones más drásticas en relación con la protección de nuestro entorno.

La mayor parte de la población, declara que clasifica y separa los residuos domésticos con la finalidad de que puedan ser reciclados. Sobre todo destaca la clasificación de papel/cartón y cristal (7 de cada 10 personas) y pilas, aunque ésta última en una proporción ligeramente inferior.

La separación y clasificación de plástico y metales es la práctica menos extendida, si bien un 60 % dice desarrollarlo de forma frecuente.

## 5.3 Acciones colectivas e individuales de carácter puntual y reivindicativo en relación con el medio ambiente

En este punto, la sociedad vasca parece encontrarse en una etapa en la que ha asimilado los problemas que existen, se ha concienciado de que se deben de tomar medidas, pero sin modificar su forma de vida, por lo menos de manera sustancial, para favorecer ese cuidado del medio ambiente.

Una gran mayoría de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco no ha desarrollado ninguna actividad o acción reivindicativa o de carácter consultivo externa en materia de medio ambiente. La acción en la que participa un porcentaje mayor de la población es la firma de algún tipo de petición o manifiesto (4 de cada 10 personas)

Los porcentajes de las personas que manifiestan un activismo externo notable, (han participado muchas o bastantes veces), salvo en el caso citado anteriormente, es siempre inferior al 10% de la población.

El porcentaje de personas que se declaran miembros de una organización ecologista o de una asociación de protección de la naturaleza se sitúa en torno a un 2.6%.

**17.grafikoa:** Zein maiztasunez sailkatzen dituzu etxeko ondorengo zaborrak ondoren birziklatzeko?

**Gráfico 17:** ¿Con qué frecuencia sueles separar los siguientes tipos de residuos domésticos para que luego se puedan reciclar?




ECOBARÓMETRO SOCIAL 2001

# Kontsumoa eta Ingurugiroa

# 6

# 6

# Consumo y Medio Ambiente

Aurreko atalean ingurugiroa zaintzeko gizartea bere gain hartzeko prest dagoen konpromiso praktikoaren maila aztertu da eta urrutirago joateko eta inguruarekiko errespetua beren kontsumo-ohituretan txertatzeko prest dauden pertsonak badaudela adierazten zen. Pertsona horiek produktu ekologikoen kontsumitzaileak dira.

Ingurugiroari lagunduko lioketen erosketak egiteari buruzko portaeraz galdetzean, kanpoko kontzeptu edo balio sozial gisa ingurugiroaren babesak/kontserbazioak sortzen duen balorazio/kezka handiak berekin dakarren inplikazio pertsonala, ingurugiroaren aldeko portaera erraztu edo sustatzen duen ekintza zehatzen planteamendutik ondoriozta zitekeena baino txikiagoa da.

En el apartado anterior se ha ido analizando el grado de compromiso práctico que la sociedad está dispuesta a asumir para el cuidado del medio ambiente y se señalaba la existencia de personas dispuestas a llegar más allá e incorporar el respeto del entorno a sus hábitos de consumo; estas personas son los/as consumidores/as de productos ecológicos.

Al preguntar sobre comportamientos de compra favorables al medio ambiente, se constata que la implicación personal derivada de la alta valoración/preocupación que genera la protección y conservación del medio ambiente como concepto o valor social externo es menor de la que podría deducirse a partir del planteamiento de acciones concretas que facilitan o incitan la demostración de un comportamiento favorable al medio ambiente.

**18. grafikoa:** Zenbatero erosten dituzu ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produktu edo zerbitzuak?

**Gráfico 18:** ¿Con qué frecuencia compra productos y servicios que no sean perjudiciales para el medio ambiente?



## 6.1 Produktuak eta zerbitzuak erosteko garaian ingurugiro--inpaktua kontuan hartzea

Ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produktuak erosteari dagokionez, biztanleen bi herenak birzikla daitezkeen bilgarriak dituzten produktuak erosten dituztela esaten dute eta horixe da, hain zuzen ere, erosketak egitean ingurugiroaren alde biztanle gehienek burutzen duten ekintza.

Horrekin batera, aipatu beharra dago, biztanleen erdiak ur eta elektrizitate gutxiago maiz kontsumitzen dutela eta, gutxi gorabehera, erdiak garraio publikoa erabili eta produktu ekologikoak edo berdeak erosten dituztela.

## 6.1 Consideración del impacto ambiental de los productos y servicios en el momento de la compra

En cuanto a la adquisición por parte de la población de productos ambientalmente amables, dos tercios de la población afirma comprar productos con envases reciclables, siendo ésta la acción a favor del medio ambiente que una mayor proporción de la población practica en la compra.

Junto con ésto señalar, que la mitad de la población frecuentemente consume menos agua y electricidad, y cerca de la mitad utiliza frecuentemente los medios de transporte públicos y compra productos ecológicos o verdes.

**19. grafikoa:** Zeinbatero egiten dituzu hurrengo ekintzak ingurugiroari laguntzeko?

**Gráfico 19:** ¿Con qué frecuencia realiza alguna de las siguientes acciones con la intención de favorecer el medio ambiente?




Grafikoan ikusten denez, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen erdiak baino gehixeagok erosten dituen ondasun eta zerbitzuek sortzen dituzten ingurugiro-kalteak kontuan ez dituztela izaten edo oso gutxi izaten dituztela ikusten da.

Informazio hori ez dator bat ingurugiroaren aldeko kontsumo-portaerez (garraio publikoak erabiltzeari, birzikla daitezkeen produktuak erosteari, ura edo/eta elektrizitate gutxiago kontsumitzeari, produktu ekologiko edo ”berdeak” erosteari buruz) berariaz galdetzean lortutakoarekin.

En el gráfico se observa que algo más de la mitad de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco manifiesta tener poco o nada en cuenta el perjuicio medioambiental que generan los bienes y servicios que compra.

Esta información contrasta con la obtenida al preguntar por comportamientos de consumo específicos favorables al medio ambiente (utilización de medios de transporte públicos, compra de productos reciclables, menor consumo de agua y/o electricidad, compra de productos ecológicos o ”verdes”).

## 6.2 Ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produktuak eta zerbitzuak erostea

Ingurugiroa errespetatzen duten produktuak erostea, bizi garen sistema sozioekonomikoari uko egin beharrik gabe, elkartasunaren eta ingurugiroarekiko errespetuaren aldeko apustua egitea da. Hiritarren kontsumo-mota hori beren bizitzetan txertatzea hainbat eragileren menpe dago.

Ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produktuetan gehien baloratzen diren ezaugarriak (10 lagunetik 4k) osasunarentzat onuragarri izatea da eta bigarren tokian (4 lagunetik ia batek) beren kalitatea dira. Bi ezaugarri horiek dira alde handiz produktu horiei atxikitzen zaizkienak. Produktu horien amu edo funtsezko ezaugarri gisa jokatzen dute.

Ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produktuak eta zerbitzuak erosten dituztela esaten duten pertsonei buruzko ehunekoak kalkulatzean, osasunarentzat dituzten onurak dira ia erdiarentzat erosketa-faktore nagusia eta produktu eta zerbitzu horien kalitateari lehentasuna ematen diotenak 10 lagunetik 3 dira.

## 6.2 Beneficios de la compra de productos y servicios no perjudiciales para el medio ambiente

Comprar productos respetuosos con el medio ambiente supone aportar algo por el Medio Ambiente sin necesidad de renunciar al sistema socioeconómico en el que vivimos, supone hacer una apuesta por la solidaridad y por el respeto al medio ambiente. El que los/as ciudadanos/as decidan incorporar este tipo de consumo a su vida cotidiana depende de varios factores.

La cualidad más valorada de los productos no perjudiciales para el medio ambiente son sus beneficios para la salud (4 de cada 10 personas) y en segundo lugar su calidad (casi 1 de cada 4 personas). Estos son los dos aspectos que, con gran diferencia, se asocian en mayor medida a estos productos actuando como reclamo y atributo esencial.

Al calcular los porcentajes en relación con las personas que declaran comprar productos y servicios no perjudiciales para el medio ambiente, resulta que los beneficios para la salud es el factor principal de compra para algo más de la mitad, mientras que las personas que priorizan la calidad de estos productos y servicios son 3 de cada 10.

**20. grafikoa:** Ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produktuetan hurrengo alderdietatik zein da gehien erakartzen zaituena?

**Gráfico 20:** ¿Cuál de los siguientes aspectos es el que más le atrae de los productos y servicios que no perjudican el medio ambiente?




Lagin osoarekiko (N=2000) ehunekoa

Porcentaje en relación con muestra total (N=2000)

Ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produktuak eta zerbitzuak erosten dituztela diotenen azpilaginarekiko (n=1504) ehunekoa

Porcentaje en relación con la submuestra de personas que afirman comprar teniendo en cuenta que los productos y servicios no sean perjudiciales para el medio ambiente (N=1540)

## 6.3 Ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produktuak eta zerbitzuak ez erostea eragiten duten faktoreak

Aurreko atalean hiritarrek produktu ekologikoak kontsumitzeko izaten dituzten arrazoiak aipatu dira. Txanponaren beste aldean, une jakin batean produktu ekologikoak ez kontsumitzeko egon daitezkeen mugak daude.

Ia 10 lagunetik batek produktu eta zerbitzu horiek ez erosteko arrazoi nagusia, horiekiko interes pertsonalik ez izatea dela diote.

Neurri txikiagoan, baina aipatutako beste arrazoi batzuk honakoak dira: produktu eta zerbitzu horiek garestiagoak izatea, beste produktu batzuetatik bereizteko edo identifikatzeko zailtasunak izatea eta horiek erosten diren lekuak topatzeko zailtasunak izatea.

## 6.3 Factores que inciden en la no compra de productos y servicios no perjudiciales para el medio ambiente

En el apartado anterior se han comentado algunas de las razones que llevan a la ciudadanía a consumir productos ecológicos. En la otra cara de la moneda se encuentran las barreras que en un determinado momento pueden existir para ejercer un consumo ecológico.

Cerca de una de cada 10 personas señala que la principal razón para no comprar estos productos y servicios es la falta de interés personal hacia ellos.

Otras razones aducidas en menor medida son el mayor precio de estos productos y servicios, la dificultad para distinguirlos o identificarlos respecto a otros productos y la dificultad para encontrar lugares donde puedan ser adquiridos.

**21. grafikoa:** Zein da ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produktuak eta zerbitzuak zuk ez erosteko arrazoi nagusia?

**Gráfico 21:** ¿Cuál es la razón principal para que usted no compre productos y servicios que no perjudican el medio ambiente?



# Gure Ingurugiroa Hobetzeko Proposamenak

7

# Propuestas para Mejorar nuestro Medio Ambiente

7

Ingurugiroari buruzko iritzi nagusiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleentzat presa handiena duten edo kezka gehien sortzen dituzten arazoak identifikatu ondoren, eremu honetan hobekuntzak eragin ditzaketen irtenbide nagusiak proposatzen dira.

Hiriei eta, zehazki, horietako zirkulazioari dagokienez, gehien aipatzen den irtenbidea garraio publikoa hobetzea da. Horrekin batera, agintari publikoek ingurugiroaren alde egiteko neurriak gogortzeko eskatzen dute hiritarrek.

## 7.1 Garraio publikoa hobetuta zirkulazio-arazo gutxiago

Jendea gehien kezkatzen duen arloetako bat hirietako poluzioa eta zirkulazio-metaketa dira. Horregatik, hiri--arazo horien inpaktua murrizteko proposatzen dituzten irtenbideak ezagutzea garrantzitsua da. Proposatzen diren ideia batzuk honakoak dira: garraio publikoa hobetzea, oinezkoentzako gune eta bidegorri edo bizikletentzako bide gehiago jartzea eta egun jakinetan ibilgailu pribatuak erabiltzea galaraztea.

Europako Batasunean zirkulazioaren arazoari aurre egiteko proposatzen diren neurrien ranking bera da EAEn ateratzen dena, neurri eraginkorrena garraio publikoa hobetzea dela esaten duen pertsona-multzoa azken horretan handiagoa delarik.

Una vez analizadas las opiniones principales sobre el medio ambiente y detectados los problemas más urgentes o preocupantes para la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se analizan las principales soluciones que podrían llevar a una mejora en este ámbito

En el caso específico de las ciudades y particularmente en el caso del tráfico, la solución que en mayor escala se propone es la mejora del transporte público. Paralelamente a esto la población propone que las autoridades públicas sean más estrictas con sus acciones a favor del medio ambiente.

## 7.1 La mejora del transporte público significa menos problemas de tráfico

Uno de los ámbitos que más preocupa a la población es la polución y la congestión del tráfico en las ciudades, por tanto es importante conocer cuáles son las soluciones que proponen con el fin de reducir el impacto de estos problemas urbanos. Algunas de las ideas planteadas son la mejora del transporte público, la creación de más áreas peatonales y bidegorris o carriles de bicicleta, así como la prohibición de utilizar el vehículo privado en días determinados.

Se constata que el ranking de las medidas apuntadas en los países de la UE para hacer frente al problema del tráfico se reproduce en la CAPV, con especial preponderancia del colectivo de personas que indican la mejora del transporte público como medida más eficaz.

**22. grafikoa:** Hurrengo neurrietatik zein da zure ustez zirkulazioaren arazoari irtenbidea aurkitzeko eraginkorrena?

**Gráfico 22:** ¿Cuál de las siguientes medidas sería la más eficaz para hacer frente al problema del tráfico?




## 7.2 Enpresen poluzioari aurre egiteko neurriak

Hiritarrek batez ere hiru irtenbide proposatzen dituzte. Lehenbizi, industria eta enpresek sortutako poluzioari aurre egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen ustez neurri eraginkorrena ingurugiro-poluzioari buruzko legeria zorrotzagoa eta zehatzailea ezartzea litzateke. Hiritarren iritziz lege zorrotzagoak egin beharko lirateke eta poluitzen duten enpresei isun handiak jarri beharko litzaizkieke.

Halaber, hiritarrak enpresen eta administrazioaren arteko akordio eta negoziazioetan oinarritutako irtenbideak bilatzearen aldeko dira; alegia, enpresen inplikazio handiagoa eta prebentzio hobea, helburuak arazo edo efektu poluitzailea agertu baino lehen zehaztuz.

Beste irtenbidea enpresek ingurugiroarekiko errespetuzko portaera izan dezaten neurri fiskal pizgarriak ezartzea litzateke. Beraz, enpresa-kulturan oinarritutako eta motibazio ekonomikoak eragindako neurrien bidez enpresak inplikatzea bilatzen duen irtenbidea proposatzen da.

## 7.2 Medidas para combatir la contaminación de las empresas

La ciudadanía propone tres medidas principales. En primer lugar, una legislación más restrictiva y punitiva en materia de contaminación medioambiental es la medida considerada más eficaz por la mitad de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para hacer frente a la contaminación generada por las industrias y empresas. Esto se debería traducir según los/as ciudadanos/as en la elaboración de leyes más estrictas y la imposición de grandes multas a empresas contaminantes.

Así mismo, los/as ciudadanos/as son partidarios de buscar soluciones basadas en el acuerdo y negociaciones entre empresas y la administración, es decir, una mayor implicación empresarial y mayor prevención, de manera que se fijen los objetivos previamente a la generación del problema o efecto contaminante.

Otra solución sería el establecimiento de medidas fiscales incentivadoras de comportamientos respetuosos con el medio ambiente por parte de las empresas. En este sentido, se plantea una solución que busca la implicación empresarial a través de medidas basadas en la cultura empresarial y orientadas por la motivación económica.

**23. grafikoa:** Hurrengoetatik zein da zure ustez EAEko enpresek eragindako ingurugiro-poluzioa murrizteko neurri eraginkorrena?

**Gráfico 23:** ¿Cuál de las siguientes medidas sería la más eficaz para reducir la contaminación del medio ambiente causada por las empresas de la CAPV?




Lege zorrotzagoak egitea eta poluitzen duten enpresei isun handiagoak jartzea proposatzen duen joera hori bat dator Europako beste herrialde batzuetan, hala nola Italian, Espainian edo Britainia Handian nagusi den iritziarekin.

La tendencia que propone la elaboración de leyes más estrictas y multas más elevadas a las empresas contaminantes coincide con la registrada en países europeos como Italia, España o Gran Bretaña.

## 7.3 Agintari publikoen jarduera

Euskal Autonomia Erkidegoko hiritarren herena baino gehixeagorentzat agintari publikoek mundu-mailan jarduteak izan beharko luke lehentasuna; galdetutakoen herenarentzat berriz, lehenengo udalerri-mailan jardun beharko litzateke. Beraz, EAEko biztanleen artean bi joera nagusi daudela ikusten da gai honi buruzko lehentasunezko jarduera-mailak zehaztean: batetik nazioarteko izaera duen joera dago eta bestetik udalerri-mailako izaera lokala.

## 7.3 Actuación de los poderes públicos

Para algo más de un tercio de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco el ámbito de actuación a nivel mundial debe ser el más urgente para los poderes públicos, mientras que para un tercio de los consultados, el nivel de actuación más urgente debe ser el ámbito municipal. De esta forma, se constata la existencia de dos aproximaciones diferenciadas entre la población de la CAPV en cuanto al nivel de actuación prioritario en esta materia: por un lado existe una orientación de carácter internacional y por otra una orientación de carácter local municipal.

**24. grafikoa:** Hurrengo zein mailatan komeni da lehenengo jardutea ingurugiroa babesteko?

**Gráfico 24:** ¿En cuál de los siguientes niveles es más urgente la actuación de los poderes públicos para proteger el medio ambiente?




Datu hauek Europako Batasunekoekin alderatuz, EAEko kasuan mundu-mailari eta toki-/udalerri-mailari emandako lehentasuna areagotu egiten dela ikus daiteke. Europako Batasunean ez bezala, EAEn agintari publikoek mundu-mailan jardun beharko luketela diotenen taldearen pisu erlatiboa, lehentasuna toki-mailako jarduerari ematen diotenena baino handixeagoa da.

Comparando estos datos con los obtenidos a nivel de la UE, se constata que la prioridad atribuida a los niveles mundial y local/municipal en el caso de la CAPV se acentúa. Al contrario de lo que sucede en la UE, el peso relativo del colectivo que prioriza la actuación de los poderes públicos a nivel mundial, en la CAPV es ligeramente superior al del colectivo que prioriza el nivel local.

# Hiritar-Motak Ingurugiroari Dagokionez

# 8

# Tipologías de Ciudadanos/as ante el Medio Ambiente

Atal honetan ingurugiro-bizipenen araberako taldeak (ingurugiroari dagokionez antzeko jarrerak dituzten pertsona-multzoak) aztertuko dira, horiek azaltzen eta desberdintzen dituzten faktore edo neurrietan oinarrituz segmentatuta.

## 8.1 Ingurugiro-ikuspegi moderatua, kritikoa eta praktikoa dutenak (% 18)

Ingurugiroaz nahikoa kezkatuta daudenak dira, informazio dezente dute eta produktu eta zerbitzuengatik gehixeago (% 10) ordaintzeko prest daude ingurugiroarentzat onuragarri bada. Erakundeekiko eta enpresekiko kritikoak dira eta ez dute horiengan konfiantzarik; aldiz, talde ekologistak, kontsumitzaileen elkarteak eta zientzia- eta unibertsitate-ingurunea ongi baloratzen dituzte.

Praktikan horien inplikazioa mugatua da (gutxitan uzten diote automobil pribatua erabiltzeari, ingurugiroarekiko produktu egokiak gutxitan erosten dituzte), nahiz eta oraingo bizimoduak eta garapenak ingurugiroari kalte egiten diotela jakin. Batez beste urte gutxien dituztenen bigarren taldea da (39 urte).

## 8.2 Pertsona baikorrak/fidakorrak, itxuraz kezkatuak (% 16)

Erakundeek egiten duten lanarekiko konfiantza handia dute, EAEn egiten den lana nahikoa dela eta azken urteotan ingurugiroaren egoera hobetu egin dela pentsatzen dutelako. Enpresak arlo hau hobetzeko ahalegin handia egiten ari direla uste dute.

Hainbat ingurugiro-arazorekiko (industria-hondakinak, airea...) kezka dute, baina ez daude oso prest ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produktuengatik gehixeago ordaintzeko, beren bizi-kalitatea murrizteko eta protesta eta manifestaldietan parte hartzeko. Talde honetan ezkonduak dira nagusi eta batez besteko adina 46,8 urtekoa da.

En este apartado se van a analizar los diferentes grupos de vivencia medioambiental (grupos de personas con posicionamientos similares ante el medio ambiente) segmentados a partir de los factores o dimensiones que los explican y los diferencian.

## 8.1 Las personas medioambientalistas moderadas, críticas y prácticas (18 %)

Se trata de personas bastante preocupadas por el medio ambiente, bastante informadas y que muestran bastante disposición a pagar algo más (un 10 %) por productos y servicios si con ello se beneficia al mismo. Se muestran críticas y desconfían bastante de las instituciones y de las empresas, mientras que valoran bastante bien a grupos ecologistas, de consumidores, entorno científico y universitario.

En la práctica muestran una implicación limitada (pocas veces dejan de utilizar el vehículo privado, pocas veces compran productos ambientalmente correctos) aunque son conscientes de que el actual modo de vida y desarrollo perjudica al medio ambiente. Es el segundo grupo con una edad media más baja (39 años).

## 8.2 Las personas optimistas/ confiadas, aparentemente preocupadas (16 %)

Muestran un notable grado de confianza en el trabajo de las distintas instituciones por considerar suficiente el trabajo desarrollado en la CAPV y porque la situación ambiental ha mejorado en los últimos años. Consideran que las empresas están haciendo un esfuerzo serio por mejorar en esta materia.

Están muy preocupadas por distintos problemas ambientales (residuos industriales, aire...) pero no están muy dispuestos a pagar algo más por productos ambientalmente correctos, a asumir recortes en su calidad de vida y a participar en protestas y manifestaciones. Las personas casadas tienen una representación significativa y la edad media de este grupo es de 46,8 años.

## 8.3 Pertsona erosoak/ instalatuak, ingurugiroari dagokionez pasiboak (% 15)

Ingurugiroarekiko batere kezkarik ez duten edo oso kezka txikia duten pertsonak dira eta ez dute ingurugiroarekiko errespetu handiagoko portaerak bere gain hartzeko asmorik: ez dute ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzerik nahi, ”ingurugiroarekiko produktu egokiak” erosteko ohiturarik ez dute, ingurugiroari buruzko gaietan ez dira gizarteak parte hartzeko dauden guneetan izaten, ingurugiroarekiko produktu egokietan ez dute prezioan igoera txikiena ere onartzen, etab. Horregatik guztiagatik, ez dute informazio handirik eta bai erakundeek, bai hiritarren elkarteek emandako informazioan konfiantza txikia dute.

Pertsona hauengan osagai indibidualak pisu handia du eta beste ezer baino lehen erosotasunari eta beren bizi-baldintzak hobetzeari ematen diote lehentasuna. Toki-izaerako orientaziotik abiatzen dira eta gertueneko eta gehien eragiten dien ingurunera mugatzen dira. Batez beste 46,7 urte dituzte.

## 8.4 Pertsona jabetuak, aktibo samarrak (% 14)

Hainbat ingurugiro-arazorekin oso kezkatuta daude eta nahikoa kritikoak dira erakundeek gai honetan egindako lanarekin, egindakoa gutxiegi dela iruditzen baitzaie.

Osasuna oso kontuan izaten dute, bai etorkizuneko belaunaldiena eta bai berea. Horregatik, jarrera eta portaera nahikoa aktiboak izaten dituzte, erosketa-portaerari dagokionez eta gizarte-partehartzeri buruz ere bai. Eta ingurugiroa zaintzeko oraingo bizimoldeak eta garapen-ereduak aldatzeko beharrari buruzko kontzientzia-maila handia dutelako nabarmentzen dira.

Hauen ustez industria da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-poluzioaren eragile nagusia eta komunikabideek eta erakundeek ematen duten ingurugiro-informazioan konfiantza txikia dute. Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen kopurua nabarmena da eta batezbesteko adin txikiena duen taldea da (38 urte).

## 8.3 Las personas cómodas/ instaladas ambientalmente pasivas (15 %)

Son personas con nula o escasa preocupación por el medio ambiente así como por la disposición a asumir comportamientos más respetuosos: ninguna disminución en la utilización del vehículo privado, no hábitos de compra ”ambientalmente correctos”, no participación social en cuestiones relativas al medio ambiente, no asunción de cierto aumento en el precio de productos ambientalmente correctos, etc. Por todo ello están poco informadas y muestran escasa confianza en la información tanto de las instituciones como de las asociaciones ciudadanas.

Se trata de personas, en las que el componente individual tiene un gran peso, priman la comodidad y la mejora de sus condiciones de vida antes que a ninguna otra cosa. Parten de una orientación de carácter local, centrada en el entorno más próximo y que más les afecta. Tienen una edad media de 46,7 años.

## 8.4 Las personas persuadidas y moderadamente activas (14 %)

Están muy preocupados por diversos problemas medioambientales, y se muestran bastante críticos respecto al trabajo de las instituciones en esta materia ya que valoran como insuficiente el trabajo desarrollado.

La salud es un aspecto muy presente tanto en lo que se refiere a futuras generaciones como en lo que se refiere a su salud personal. Por ello presentan actitudes y comportamientos bastante activos, tanto en relación con comportamiento de compra, como en relación con la participación social, y se destacan por su elevado grado de consciencia sobre la necesidad de cambiar los actuales modelos de vida y desarrollo para preservar el medio ambiente.

Señalan a la industria como el principal agente causante de la contaminación ambiental en la Comunidad Autónoma del País Vasco y confían poco en la información medioambiental difundida por los medios de comunicación e instituciones La presencia de personas con estudios superiores es significativa y es el grupo medioambiental con una edad media más joven (38 años).

## 8.5 Ingurugiroarekiko aldeko jarrera dutenak eta proaktiboak (% 12)

Talde hau ingurugiroarekiko kontzientziazio-, prestutasun- eta benetako inplikazio-maila handiena dutenek osatzen dute. EAEko etorkizuneko helburu nagusia ingurugiroaren kontserbazioa dela adierazten dute.

Ingurugiroaren kontserbazioari ematen diote lehentasuna hazkunde ekonomikoaren aldean eta ingurugiroaren alde egiteko eta portaera askoz zuzenagoak izateko norberak dituen aukerak azpimarratzen dituzte.

Erosten diren produktuen ingurugiro-inpaktua oso kontuan izaten dute (birzikla daitezkeen eta ingurugiroari kalterik egiten ez dioten bilgarridun produktuak, produktu ekologikoak...) eta ondo informatuta daudela iruditzen zaie; erakunde eta elkarte pribatuek eta euskal erakundeek ematen dieten informazioan konfiantza osoa dute.

Mundu-mailako ingurugiro-arazoek kezkatzen dituzte batez ere eta oso negatiboki baloratzen dute gai honi dagokionez nazioarteko erakundeek (Nazio Batuen Erakundeak, Europako Batasunak) egindako lana.

## 8.6 Ingurugiro-arazoak ezagutzen ez dituztenak eta erakunde--erreferentziarik gabeak (% 8)

Ingurugiro-arloa oro har ezagutzen ez dutenek osatzen dute taldea. Bereziki, erakundeetako eta gizarteko eragileek egindako lanarekin zerikusia duenaren berri ez dute. Erakundeei buruzko informaziorik ez duten eta beren buruak horietan kokatzen ez dituztenak izatea da hauen ezaugarria.

Arlo honetan gai kezkagarrienak airearen poluzioa eta paisaiaren hondamena dira talde honetakoentzat, baina aldaketen aurrean oraingo garapen-ereduari eustearen aldeko agertzen dira. Halaber, ez daude prest beren bizi-mailan murrizketak izateko eta gizartearen parte hartzeko ekimenetan, hala nola manifestaldietan eta ingurugiroa babesteko era eta taldeetan ez dute parterik hartzen.

## 8.7 Itxaropena galdu dutenak eta kontzienteki inplikaziorik gabeak (% 7)

Erabat kritikoak dira gai honi dagokionez erakundeekiko eta herritarren elkarteekiko. Ez daude prest inguru-

## 8.5 Las personas ambientalistas predispuestas y proactivas (12 %)

Este grupo integra a aquellas personas con un mayor grado de concienciación, disponibilidad e implicación real en relación con el medio ambiente. Señalan la conservación del medio ambiente como el objetivo de futuro más importante de la CAPV.

Priorizan la protección del medio ambiente sobre el crecimiento económico, y señalan la posibilidad individual que tienen de actuar a favor del medio ambiente y desarrollar comportamientos mucho más correctos.

Tienen muy en cuenta el impacto medioambiental de los productos que se adquieren (productos con envases reciclables, no perjudiciales para el medio ambiente, productos ecológicos...) y se consideran bien informadas confiando plenamente en la información proporcionada por las entidades y asociaciones privadas, sí como por las instituciones vascas.

La problemática medioambiental fundamentalmente les preocupa a nivel mundial y valoran muy negativamente el trabajo desarrollado en esta materia por las instituciones internacionales (ONU, UE).

## 8.6 Las personas desconocedoras de lo medioambiental y carentes de referencias institucionales (8 %)

Engloba a personas que muestran un desconocimiento global sobre la cuestión medioambiental, y de manera especial, en relación con el papel desarrollado por los diversos agentes institucionales y sociales. En este sentido se caracterizan por presentarse como personas institucionalmente desinformadas o desubicadas.

Señalan la contaminación del aire y la destrucción del paisaje como las principales preocupaciones en esta materia, pero muestran tendencia al mantenimiento del actual modelo de desarrollo frente a posibles cambios. Así mismo expresan una nula disposición a aceptar recortes en el nivel de vida personal y una nula participación social en iniciativas como manifestaciones, formas y colectivos de defensa.

## 8.7 Las personas desencantadas y conscientemente no implicadas (7 %)

Son totalmente críticos/as con las instituciones y asociaciones cívicas en relación con esta materia. Tienen una

giroarekiko errespetuzko konpromisoak eta portaerak bere gain hartzeko (nork bere ibilgailua erabili ordez garraio publikoa erabiltzeko, etxeko zaborrak sailkatu eta birziklatzeko...).

Ez dute elkarte eta erakundeetan konfiantzarik, batez erakunde publiko, enpresa eta komunikabideetan, eta EAEn egindako lana negatiboki baloratzen dute, egoerak okerrera egin baitu. Batez beste 51,1 urte dituzte.

## 8.8 Kezkarik eta prestutasunik gabeak (% 6)

Ingurugiro-arazoekiko erabat axolagabeak dira eta ingurugiroa kontserbatzearen aldeko jarrerak eta portaerak izateko ez daude batere prest, ez maila pertsonalean, ez eta gizartearen parte-hartzeko ekimenetan ere.

Beren ustez ingurugiro-gaiei ematen zaien garrantzia gehiegizkoa da eta oraingo garapen eta hazkunde ekonomikoko ereduei eusteari ematen diote lehentasuna. Gizarte-izaerako ekimen eta mugimenduak (talde ekologistak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak ...) baztertu egiten dituzte

Informaziorik ez dutela jasotzen diote edo ezer gutxi, eta sektore-izaerako elkarte eta taldeetatik, hala nola talde ekologista eta kontsumitzaileen elkarteetatik datozkien informazioan ez dute konfiantzarik edo oso txikia da. Batez beste 46,7 urte dituzte.

## 8.9 Ingurugiroari dagokionez konforme dauden pertsona delegatzaileak (% 4)

Ingurugiro-arazoak erakundeen eta gizarte-eragileen esku uzteko joera dute. Horien lanaren oso balorazio positiboa egiten dute eta erabateko konfiantza dute horiengan.

Euskal Autonomia Erkidegoan ingurugiroari dagokionez egindako lana nahikoa eta gehiago dela eta garapen ekonomikoari garrantzi handia ematen diote, ingurugiroa babesten hasi aurreko baldintza hori lortua izatea dela pentsatzen baitute.

Ez daude ingurugiroaren aldeko jarduerak egiteko prest eta ingurugiroarekiko errespetuzko portaera-irudia ematen dute, batez ere erosketa-ohiturei dagokienez.

nula disposición a asumir compromisos y comportamientos respetuosos con el medio ambiente (disminución del uso del vehículo privado en beneficio del transporte público, clasificación y reciclaje de residuos domésticos...).

No confían en entidades y organismos, sobre todo de carácter institucional, empresas y medios de comunicación y, valoran de forma insuficiente el trabajo desarrollado en la CAPV ya que la situación ha evolucionado a peor. Tienen una edad media de 51,1 años.

## 8.8 Las personas despreocupadas e indispuestas (6 %)

Destacan por su elevado grado de despreocupación por la problemática medioambiental y por su nula disposición a adoptar actitudes y comportamientos comprometidos con la conservación del medio ambiente, tanto en el plano personal como en el de la participación social.

Consideran que la importancia que se atribuye a las cuestiones medioambientales es excesiva y priorizan el mantenimiento del actual modelo de desarrollo y crecimiento económico y rechazan las iniciativas y movimientos de carácter social (grupos ecologistas, asociaciones de consumidores y usuarios...).

Manifiestan recibir poca o ninguna información y tener poca o ninguna confianza en la información procedente de las asociaciones y colectivos de carácter sectorial como los grupos ecologistas y las asociaciones de consumidores. Cuentan con una edad media de 46,7 años.

## 8.9 Las personas delegadoras ambientalmente satisfechas (4 %)

Muestra una tendencia a delegar las cuestiones medioambientales en las instituciones y demás agentes sociales, valorando su labor de forma altamente positiva y mostrando una total confianza en las mismas.

Consideran que el trabajo desarrollado en la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de medio ambiente es más que suficiente y atribuyen gran importancia al progreso económico como condición previa para garantizar la protección del medio ambiente.

No muestran predisposición a desarrollar actuaciones a favor del medio ambiente y presentan una imagen de comportamiento respetuoso con el mismo, sobre todo en relación con los hábitos de compra.

Hainbat bidetatik informazio asko lortzen dutela eta maila sozioekonomiko handia duten inguruetan bizi ohi dira.

## 8.10 Ingurugiroari dagokionez, ezagutzen ez dutenak eta kokapenik gabeak (% 3)

Beren bizitzan inolako ingurugiro-irizpiderik bereganatu ez duten edo oso maila apalean bereganatu dituzten pertsonak dira. 6. taldekoekiko duten aldea ez ezagutze hori oinarri-oinarrizko izatean datza. Horregatik ezin dute ingurugiroak balio sozioekonomikoetan (aurrerapen ekonomikoan, bizi-ereduan, aurrerapen teknologikoetan ...) eta beren portaera pertsonaletan (gehixeago ordaintzeko prest egotea, bizi-maila pertsonalean murrizketak onartzea, ingurugiroarekiko egokiak diren produktuak erostea, produktu ekologikoak, hainbat ekimenetan, hala nola manifestaldietan, sinadura-bilketetan, .. parte hartzea) duen eraginaz ezin dute jabetu.

Erakunde publikoek eta pribatuek egindako lana baloratzeko irizpiderik ez dute eta batez besteko adin handiena duen taldea da (65,3 urte).

Afirman obtener mucha información a través de distintos medios y son personas que residen en entornos en los que predomina un nivel socioeconómico elevado.

## 8.10 Las personas desconocedoras y desubicadas respecto al medio ambiente (3 %)

Son personas que no han incorporado prácticamente ningún criterio medioambiental a su vida o que lo han hecho en un grado muy reducido. Se distinguen del grupo 6 en que su desconocimiento es de carácter más elemental, y les impide ver la importancia del medio ambiente en relación con valores socioeconómicos (progreso económico, modelo de vida, avances tecnológicos...) así como en relación a sus propios comportamientos personales (disposición a pagar algo más, aceptar recortes en el nivel de vida personal, compra de productos ambientalmente correctos, productos ecológicos, participar en iniciativas como manifestaciones, firmas...).

No disponen de información y criterios para valorar el papel desarrollado por las distintas instituciones públicas y privadas y destacan por ser el grupo con una edad media más alta, 65,3 años.

**25. grafikoa:** Euskal Autonomia Erkidegoko 15 urte edo gehiagoko biztanleak ingurugiro-bizipenen araberako taldetan.

**Gráfico 25:** Distribución de los grupos de vivencia medioambiental en la población de 15 y más años de la Comunidad Autónoma del País Vasco.



# 9 Ondorioak

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek ingurugiroaz duten iritziari buruzko 2001 Ekobarometro Sozial honetan aztertutako datuetatik abiatuz atera ditugun ondorio nagusiak hauek dira:

1. EAEn hiritarren kezka nagusiak, beren bizi-kalitateari zuzenean eragiten diotenak, alegia, gatazka politikoa eta soziala murriztea, aberastasuna eta lana sortzea, izan arren, ingurugiroa etorkizunari begira gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den gizarte-helburu bihurtu da.

2. EAEko biztanleak gehien kezkatzen dituen alderdia ingurugiroaren poluzioak osasunean duen eragina da. Airearen eta uraren poluzioa dira oraingo eta etorkizuneko arazo nagusiak. Iritzi hori bat dator Europako herrialde gehienetan dutenarekin.

3. Iritzi nagusia ingurugiro-egoera mundu-mailan larriagotzea da. Tokiko eta erkidegoko administrazioen lanari buruzko iritzia positiboa izan arren, ingurugiroaren alde ahalegin handiena hiritarrak egiten ari direla uste dute hiritarrek. Hiritar gehienen ustez, fabrikak dira poluzio-eragile nagusiak eta ez dute ingurugiro hobea bermatzeko lan handirik egiten ari direnik uste.

4. Gutxi gorabehera EAEko biztanleen erdiak nahikoa informazio baduela uste du eta beren iritzia telebista, prentsa idatzi eta irratiaren bidez eratzen dute. Halaber, lagunek eta ingurugiroan espezializatutako argitalpenek ematen dioten informazioan jartzen du arreta. Aipagarria da Interneten kasua. Etengabe hazten ari den komunikabidea izan arren, populazioaren gutxiengoak erabiltzen du xede horretarako.

5. Euskal herritarren erdiak ingurugiroak hazkunde ekonomikoarekiko lehentasuna duela uste du, oraingo bizi-moldeak eta garapen-ereduak kalte egiten baitio eta aldatu egin behar dela uste baitu-

# 9 Conclusiones

A partir de los datos analizados en este Ecobarómetro Social 2001 sobre la opinión de los habitantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco respecto al medio ambiente, las principales conclusiones que obtenemos son las siguientes:

1. A pesar de que en la actualidad las principales preocupaciones de los/as ciudadanos/as son aquellas que afectan a su calidad de vida, como la reducción de la conflictividad política y social, la creación de riqueza o empleo, el medio ambiente se convierte en el objetivo social cuya importancia crece con mayor intensidad de cara al futuro.

2. Uno de los aspectos que más preocupa a los habitantes de la CAPV es las consecuencias de la contaminación del medio ambiente sobre la salud. La contaminación del aire y del agua destacan como principales problemas hoy en día y en un futuro. Esta opinión coincide con la registrada en la mayoría de los países europeos.

3. Hay una percepción general de que la situación ambiental se están agravando a nivel mundial. A pesar de que la opinión sobre el trabajo de las instituciones locales o autonómicas es positiva, la población opina que el esfuerzo mayor a favor del medio ambiente lo está realizando la ciudadanía. La mayoría de los/as ciudadanos/as piensan que las industrias son el principal causante de la contaminación y no consideran que estén trabajando de forma seria para asegurar un medio ambiente mejor.

4. Aproximadamente la mitad de los habitantes de la CAPV consideran que está bastante informados/as y forma su opinión a través de la televisión, prensa escrita y la radio. Así mismo, presta una atención considerable a la información que le proporciona su círculo de amistades y las publicaciones especializadas en medio ambiente. Llama la atención el caso de Internet, que pese a ser un canal de comunicación en constante crecimiento solo es utilizado con ese fin por una minoría de la población.

5. La mitad de los vascos/as piensan que el medio ambiente es prioritario frente al crecimiento económico, ya que el actual modo de vida y de desarrollo resulta perjudicial y es preciso cambiarlo. Al

te. Halaber, biztanleen erdiak baino gehiagoren ustez hazkunde ekonomikoa ez da beti ingurugiroaren kaltetan izaten. Horregatik, ingurugiroaren babesaren eta hazkunde ekonomikoaren eta horrek gure bizimoduan duen eraginaren arteko bateragarritasunari dagokionez, gizarteak iritzi desberdinak ditu.

6. EAEko biztanle gehienak ingurugiroa eragiten zaizkion kalteak benetakoak direla uste du eta ingurugiroarekiko norberak hartu beharreko konpromisoa garrantzitsua dela, besteek egiten dutena egiten dutela ere. Gainera, egiten dutena baino gehiago egin dezaketela onartzen dute, beren ekonomiaren zati bat sakrifikatuz, alegia, horren kaltegarriak ez diren produktuak (elikagai ekologikoak, horren poluitzaitzeak ez diren garbigarriak, automobil ekologikoagoa, etxe-kontsumorako elektrizitatea) erostean zertxobait gehiago ordainduz. Baina, biztanleen erdia ez dago bizi-maila pertsonalean murrizketak onartzeko prest, hala nola zerga gehiago ordaintzeko (ingurugiroaren gaineko zerga) eta erregaia garestiago ordaintzeko.

7. Birziklatzea da hiritarrek ingurugiroarekiko duten kezka ondoen islatzen duen erreferenteetako bat eta hori sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainen ondorio da; izan ere ingurugiroari kalte egitea eragozten duen irtenbide gisa ikusten baitu jendeak. Hiritar gehienek etxeko zaborra sailkatzen dutela adierazten dute eta birzikla daitezkeen bilgarriak dituzten produktuak erosten dituztela. Hiritarren erdiak maiz ur eta elektrizitate gutxiago kontsumitzen dutela ere esaten du eta garraio publikoa erabiltzen duela. Baina Euskal Autonomia Erkidegoko hiritarren erdiak baino gehiagok erosten dituen ondasun eta zerbitzuek eragiten duten ingurugiro-kaltea kontuan ez dutela hartzen edo oso gutxitan hartzen dutela diote eta automobila erabiltzen duten erdiek ez dute inoiz ez erabiltzea pentsatu. Eta hori aurrekoarekin kontraesanean dago.

8. Ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produktuak erosteko motibazio nagusia osasunari ekartzen dizkion onurak eta beren kalitatea dira. Eta produktu horiek ez erosteko arrazoi nagusia, berriz, batez ere interes pertsonalik eza da, baina garestiagoak izatea eta bereizteko eta identifikatzeko zailtasuna ere bai.

9. Ingurugiroarekiko errespetu handiagoko portaera lortzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek honakoak aipatu dituzte:

mismo tiempo, más de la mitad de la población considera que el crecimiento económico no siempre se produce a costa del medio ambiente, por lo que existe una división de criterios en la sociedad sobre la compatibilidad entre la protección del medio ambiente y el crecimiento económico y sus implicaciones en nuestro modo de vida

6. La gran mayoría de la población de la CAPV está convencida de la seriedad de las amenazas que se ciernen sobre el medio ambiente y reconoce que el compromiso personal en materia de medio ambiente es importante, independientemente de que otras personas actúen o no del mismo modo. Además reconocen que pueden hacer más de lo que hacen, sacrificando parte de su economía, es decir, pagando algo más por productos menos nocivos (alimentos ecológicos, productos de limpieza menos contaminantes, coche más ecológico, electricidad de consumo doméstico). Sin embargo, la mitad de la población no está dispuesta a aceptar algunos recortes en el nivel de vida personal como pagar más impuestos (impuesto sobre el medio ambiente) y pagar más por el combustible.

7. El reciclaje es uno de los referentes que mejor refleja la preocupación de los ciudadanos por el medio ambiente, lo que es consecuencia de las campañas de sensibilización y concienciación, ya que se percibe como una solución que evita que se dañe al medio ambiente. La mayoría de los/las ciudadanos/as declaran clasificar los residuos domésticos para que puedan ser reciclados y afirman comprar productos con envases reciclables. También la mitad de la población dice consumir frecuentemente menos agua y electricidad y utiliza los medios de transporte público. Esto contrasta con el hecho de que algo más de la mitad de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco no tiene en cuent,a o pocas veces, el perjuicio ambiental que generan los bienes y servicios que compra y que la mitad de las personas que usan un vehículo no se han planteado dejar de utilizarlo nunca.

8. La motivación principal para la compra de productos no perjudiciales para el medio ambiente son sus beneficios para la salud y su calidad, mientras que los principales frenos para la no compra de estos productos son la falta de interés personal principalmente, el mayor precio y la dificultad para distinguirlos o identificarlos.

9. En cuanto a las posibles soluciones para lograr un comportamiento más respetuoso con el medio ambiente, los habitantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco sugieren:

- Zirkulazio-arazoei dagokienez: garraio publikoa hobetzea, oinezkoentzako gune eta bidegorri (bizikletentzako bide) gehiago jartzea eta egun jakinetan automobil pribatua erabiltzea galaraztea.
- Poluzioari aurre egiteko lege zorrotzagoak.
- Enpresen eta administrazioaren arteko hitzarmenak, enpresak gehiago inplikatzea eta prebentzio handiagoa eragingo dutenak.
- Enpresa-kulturan oinarritutako eta motibazio ekonomikoak eragindako neurri fiskal pizgarriak.
- Udalerri-mailan lehenbailehen jardutea.

10. Azkenik, eta ingurugiroari dagokionez dauden hiritar-motei buruz, esan beharra dago, ingurugiroarekiko kontzientziazio-, prestutasun- eta benetako inplikazio-maila handiena dutenek eta EAEren etorkizuneko helburu garrantzitsuena ingurugiroaren kontserbazioa dela aipatzen dutenek osatzen duten segmentua edo taldea 15 urte edo gehiago dituzten biztanle guztien % 12 ingurukoa baino ez dela.

- Respecto a los problemas de tráfico: mejorar el transporte público, crear más áreas peatonales o bidegorris (carriles de bicicleta) y la prohibición de usar el vehículo privado en días determinados.
- Leyes más estrictas para combatir la contaminación.
- Acuerdos entre empresas y la administración, que lleven a una mayor implicación empresarial y a una mayor prevención.
- Medidas fiscales incentivadoras basadas en la cultura empresarial y orientadas por la motivación económica.
- Actuar de manera urgente en el ámbito municipal.

10. Por último y en cuanto a las tipologías de ciudadanos/as ante el medio ambiente, destacar que el segmento o grupo de vivencia medioambiental caracterizado por tener un alto grado de concienciación, una elevada disponibilidad e implicación real y que señalan la conservación del medio ambiente como objetivo de futuro más importante en la CAPV, tan sólo representa en torno a un 12% del conjunto de la población de 15 y más años.

Txosten honen kopia-kupuru mugatua zure esku dago. Euskal enpresarentzat doako zerbitzua den **IHOBE-Line** Ingurugiroko Informazio Zerbitzuan, **900 15 08 64** telefonoan eskatu besteriz ez duzu.

© IHOBE, S.A. Lehen aldiz 2001ko ekainaren inprimatua. Material honen nahi adina kopia egin daitezke, saltzeko edo publizitatean erabiltzeko ez bada.

Txosten hau klororik gabe zuritutako paperean dago inprimatuta.

Se encuentra a su disposición un número limitado de copias del presente informe solicitándolo a través del Servicio de Información Ambiental gratuito para la Empresa Vasca, **IHOBE-Line** en el teléfono **900 15 08 64**.

© IHOBE, S.A. Impreso por primera vez en Junio 2001. Este material puede ser libremente reproducido excepto para su venta o publicidad.

Este informe ha sido impreso en papel blanqueado sin cloro.

2001 EKOBAROMETRO SOZIALA

IHOBE

Sociedad Pública Gestión Ambiental

Ibañez de Bilbao, 28 - 8ª planta
48009 - BILBAO (Bizkaia)
Teléfono: 900 15 08 64
Fax: 94 425 59 10
e-mail: info@ihobe.es
www.ihobe.es

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

ECOBARÓMETRO SOCIAL 2001